



*Kultur mezenasgorik gabe, Da Vincik
ez zuen artelan hau amaituko.*

**Nafarroako erakunde eta artista askok
zure laguntza behar dute beren
lanak amaitzeko.**

IZAN ZAITEZ MEZENAS



MEZENASGOA KULTURA NAFARROA

mecna.navarra.es
848 42 46 00



**Nafarroako
Gobernua**

Mezenas izan nahi dut

Nola izan naiteke mezenas?

Mezenasgoa dirua, ondasunak edo eskubideak ordainik gabe ematea da.

Nafarroaren kultur garapenari laguntzeko hiru bide daude:

- **DOHAINTZA.** Dirua, ondasunak edo eskubideak ematea, edo zerbitzuak dohainik egitea.
- **ERABILERA MAILEGUAK.** Kultur interesa duten ondasunak, jarduerak egiteko lokalak, kalitatezko artelanak eta beste batzuk dohainik eta aldi baterako lagatzea.
- **LANKIDETZA HITZARMENAK** ekarpenak egiten dituztenen eta jasotzen dituztenen artean; jasotzaileek mezenasen partaidetzaren zabalkundea egiteko konpromisoa hartzen dute laguntzaren truke.

Zer artista eta entitateri lagundu ahal diet?

Zerga pizgarriak izateko, mezenasek MECNA proiektuak eta jarduerak garatzen lagundu behar dute, hau da, Nafarroako Kultura Kontseiluak erabakita interes soziala duten ekimenak.

MECNA entitate eta artista ugari daude XXI. mendeko mezenas hauen laguntzaren zain.

Haien zerrenda mecna.navarra.es helbidean dago: arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, arte plastikoak, liburua eta literatura, ondarea eta beste batzuk.

Mezenas naiz. Zein dira onura fiskalak?

MECNA ekimenei laguntzeak zerga pizgarri hauek ditu helbide fiskala Nafarroan duten zergadunentzat.

- **PARTIKULARRENTZAT:** **kenkaria PFEZaren kuotan, %80 emandako lehen 150 euroetan eta %40 gainerakoan.** Adibidez: 50 euroko mikrodohaintza batean, 40 euro. 150 euroko dohaintza batean, 120 euro. 1.000 euroko dohaintza batean, 460 euro.
- **EMPRESAS:** **sozietateen gaineko zergaren oinarrian zenbatekoa kentzea, eta kuota likidoaren %30eko kenkaria lehenbiziko 300 euroetan, eta %20koa hortik aurrerakoetan.** Adibidez: % 20ko zergapetzea duen enpresa batek, adibidez, 3.000 euroko dohaintza batengatik 1.230 euroko kenkaria izanen du.

Kultur Mezenasgoari buruzko Foru Legean abantaila handiagoak ezartzen dira publizitate arloko babesletzarako.

